



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2021EKO MAIATZA

Maiatza hotza eta oso lehorra izan zen. Horrela eman genion bukaera mende honetako udaberri klimatologiko lehorrenari. Muturreko egoerak urriak izan ziren eta igorritako bost abisu horiak udan ohikoak diren arrazoiengatik izan ziren, hots, enbatagatik edo prezipitazio handiagatik. Berriro ere efemerideak izan genituen, estazio gutxi batzuetan, 10 minutuan eta ordubetean pilatutako prezipitazio maximoenak.

Prezipitazioa

Maiatza oso lehorra izan zen, Gernika-Bermeon eta Donostialdean izan ezik, kostaldeko eskualde horietan ohikoa izatetik gertu ibili ziren. Estazio gutxitan pilatu ziren 100 mm baino gehiago, eta guztiak Gipuzkoa ekialdean daude (Eskas 150.8 mm, Añarbe 110.7 mm, Berastegi 102.8 mm, Ereñozu 102.4 mm, Ameraun 102.2 mm). Ondoren, ekialdeko kostaldean dauden estazioak datoz (Miramon 95.1 mm, Oiartzun 83.4 mm), Bizkaiko kostaldekoak (Matxitxako 74.2 mm, Almike 71 mm) eta Urola ibaiaren arroan daudenak (Aitzu 74.5 mm, Aizarnazabal 71.3 mm). Mediterraneo isurialdean pilatutako euria oso urria izan zen (Kanpezu 9.4 mm, Moreda 14.1 mm, Espejo 17.8 mm, Navarrete 18.1 mm), baita kantauri isurialdeko zenbait tokitan pilatutakoa ere, esate baterako Enkarerrietan (Zalla 25.6 mm, Balmaseda 31.4 mm). Euri gehien egin zuen eskualde horietan izan ezik, gainerako tokietan ohikoa denaren erdia baino gutxiago pilatu zen. Maiatza EAE osoan mende honetako bigarren lehorrena izan da, 2004ko maiatzaren eta 2016ko maiatzaren parekoa; 2006ko maiatza soilik izan zen lehorragoa.

Gauzak horrela, maiatzak aurreko hilabeteen joera berdinen jarraitu zuen eta mende honetako udaberri klimatologiko lehorrena izan genuen.

Lehorra izan arren, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa izan zen orokorrean, ez ordea Araba hegoaldean, han euri-egun gutxiago izan ziren (adibidez Arabako Errioxan 4). Vitoria-Gasteizen eta Bilbon 10 euri-egun inguru izan ziren eta Donostian 16 inguru, hilabete osoan banatuta. Egun batean ere ez zen izan prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm).

Nabarmenena trumoi-ekaitzekin batera jatorri konbektiboa duten prezipitazio handiei loturiko egoerak jazo izana izan zen, izan ere horrelako gertaerak sasoi beroan gertatu ohi dira. Zentzu horretan, bi egunetan izan genituen zaparrada handiak (≥ 15 mm/h).

Lehenengoa, hilaren 9an, arratsaldean. Fronte batek lurraldea zeharkatu zuen, mendebaldetik ekialdera, ezegonkortasun-lerro bat aurretik zihoala. Zaparrada trumoitsuak bota zituen, batez ere Kantauri isurialdean, Gipuzkoa ekialdeko zenbait lekutan handiak (Eskas 18.3 mm/h, Berastegi 15.2 mm/h, Añarbe 12.6 mm/h, Orozko 10.8 mm/h, Igorre 9.2 mm/h).



Bigarrena, eta prezipitazioari loturiko muturreko egoerarik aipagarriena, maiatzeko azken egunean gertatu zen. Arratsalde-gau partean Portugalgo kostaldearen parean zegoen GIDE bati loturiko ezegonkortasun-lerroek zaparrada trumoitso ertain-handiak utzi zituzten, 1-2 cm inguruko diametroa zuten txingor aleekin batera. Zaparrada horiek zenbait lekutan ertain-handiak izan ziren (Alegia 22.5 mm/h, Zaldiaran 19.4 mm/h, Derio 16.6 mm/h, Deusto 15.9 mm/h, Araxes 15.2 mm/h, Sangroniz 14.8 mm/h). Zaldiaranen, Derion eta Sangronizen ordubeteetan pilatutakoa XXI mendeko errekor berria izan zen, baita 10 minutuan Zaldiaranen (14 mm) eta Alegian (8.3 mm) pilatutakoa ere. Horrez gain, Zaldiaranen kasuan, 10 minutuan pilatutakoa urteko seriea kontuan hartuz, bigarren handiena izan zen.

Taula 1: Azken urteetan maiatzean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	50.1	44.6	62	66.5	51.8	42.8	52.6	43.1	105.2	56.3
Lasarte	69.7	104.2	164	114.3	70.7	83.8	75.6	102.4	222.2	109.2
Arrasate	39.8	89.5	131.7	81.3	52.5	59.7	100.7	102.9	163.4	91.2
Abetxuko	39.5	56.9	46.8	53.2	41.7	32.4	16.2	35.0	66.3	46.7
Párganos	18.0	40.5	31.1	47.5	31.5	22.1	2.9	25.1	31.0	40.7

Temperatura

Maiatzeko batez besteko tenperatura hotza izan zen. Kostaldean 14-15 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 12 °C-ak gainditu ziren, gutxi gorabehera 1981-2010 denboraldiko batezbestekoa baino 0.5 °C baxuagoa. Mende honetako datuak kontuan izanik, seigarren maiatzik hotzena izan da, eta serieko hotzena 2013koa izan zen.

Eguneko tenperaturaren bilakaerari so eginez, egun hotzak beroei gailendu zitzaizkien. Egun beroak hilaren 5etik 10era bitartean eta hilaren amaieran izan ziren.

Hilaren hasieran barnealdean tenperaturaren inbertsioak izan ziren. Atlantikoko antizikloia gurean zabaldu zen eta eguraldia egonkorra izan zen, baina hotz egiten jarraitu zuen, aska bat pasatu berri zelako. Horrela, hilaren 2tik 4ra izotz txikia egin zuen, batez ere Mediterraneo isurialdeko ibarretan eta kubetetan (Hilaren 2an: Tobillas -1 °C, Altube -0.8 °C, Antoñana -0.8 °C, Subijana -0.5 °C, Salvatierra -0.4 °C).

Hilaren 20an ere eguraldia egonkorra izan zen eta zerua oskarbi egon zen orokorrean. Anplitude termikoa handia izan zen eta Araba ekialdeko zenbait lekutan izotza egin zuen (Iturrieta -1.4 °C, Egin -0.5 °C, Trebiño -0.2 °C), gauean izandako irradiazioagatik. Orduetik aurrera, mendi inguruetan baino ez zuen izotza egin (Hilaren 23an: Tobillas -0.3 °C; hilaren 26: Iturrieta -0.5 °C)



Tenperatura maximoiei dagokienez, hilaren 8an eta 31an neurtutakoak izan ziren aipagarrienak, hilabete osoko altuenak izan baitziren. Hilaren 8a izan zen kostaldeko eskualdeetan egunik beroena eta tenperatura maximoek 30 °C-ak aise gainditu zituzten (Arteaga 32.4 °C, Almike 31.7 °C, Higer 31.2 °C, Zarautz 30.9 °C). Kantauriko bailaretako zenbait lekutan ere gainditu zen muga hori (Igorre 31.1 °C, Ordizia 30.9 °C, Iurreta 30.8 °C, Areta 30.5 °C), baita Ebro ibarrean ere (Zambrana 30.1 °C, Moreda 30 °C).

Hilaren 31an, aldiz, kantauriko bailaretan neurtu ziren tenperatura maximo altuenak, batez ere Aiaraldean, eta Durangaldea eta Debagoiena artean (Saratxo 33.2 °C, Elorrio 32.4 °C, San Prudentzio 32 °C, Berna 31.3 °C). Bilbo Handiko eta Enkarerrietako zenbait lekutan ere 30 °C-tik gorako tenperatura maximoak neurtu ziren (Galdakao 31.4 °C, Zalla 30.7 °C, Sodupe 30.7 °C), baita Arabako Lautadaren mendebaldean eta Añanan ere (Zambrana 30.9 °C, Nanclares 30.2 °C).

Tenperatura altuekin batera, intsolazioa ere ohikoa dena baino handiagoa izan zen, % 10 handiagoa, gutxi gorabehera, kostaldearen mendebaldean izan ezik, han eguzki-ordu gutxiago izan ziren. Bilbok 169 eguzki-ordu inguru izan zituen, Donostiak 181 eta Gasteizek 196.

Taula 2: Maiatzean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	14.8	17.8	14.7	14.6	17.2	16.7	16.5	14.9	13.0	17.1
Lasarte	14.1	17.3	13.2	14.3	16.8	15.5	15.5	14.1	12.0	16.4
Arrasate	13.4	16.1	12.0	12.8	16.4	14.0	14.5	12.7	10.2	15.0
Abetxuko	12.3	15.7	11.9	12.3	15.8	13.6	14.5	12.7	10.1	14.4
Párganos	14.5	16.7	13.0	13.5	17.1	14.1	15.9	13.5	10.6	15.4

Haizea

Maiatzean hirugarren eta laugarren koadranteko haizea izan zen nagusi. Lehenengo koadrantea ez zen apenas ibili, brisa ibili zen egun batzuetan soilik, eta are gutxiago bigarren koadrantea.

Maiatzeko lehen egunetan ipar-osagaiko haizea izan zen nagusi eta ez zen bizi ibili orokorrean, hilaren 5ean izan ezik; egun hartan haize-bolada gogorren bat neurtu zen. Egoerak horrela jarraitu zuen hilaren 7ra arte.

Hilaren 7tik aurrera hego-haizea izan zen nagusi eta haizea indartsuago ibili zen. Haize-bolada oso gogorrak egunero neurtu ziren. Haien artean aipagarrienak, hilaren 12an izandako enbata neurtutakoak. Hilaren 9an ere enbata izan zen, baino intentsitate txikiagokoa.



Hilaren 13tik aurrera mendebaldeko haizea gailendu zen eta ahultzera egin zuen berriro ere. Hala ere, mendebal/hego-mendebaldeko haizea ibili zen egunetan haize-bolada gogor batzuk neurtu ziren.

Hilaren 18an haizea hego/hego-mendebaldetik ipar/ipar-mendebaldera aldatu zen, 96.3 km/h haize-bolada batekin Paganoseko estazioan. Egun hartatik aurrera eta hilaren amaierara arte konfigurazio sinoptikoa orokorrean ongi definitu gabekoa izan zen, udan gertatu ohi den bezala: horrela, haizea egunaren hasieran eta amaieran aldakor eta ahul ibili zen, arratsaldetan iparraldekoa nagusitu zen eta biziago ibili zen. Hilaren 21ean fronte bat pasa zen eta Paganoseko estazioan ipar-mendebaldeko haize-bolada oso gogor bat neurtu zen (87.5 km/h), hilaren 24an eta 29an 70 km/h-tik gorako haize-boladak neurtu ziren Matxitxakon eta Paganosen, hurrenez hurren. Egun horietan salbu, haizea ahul ibili zen eta ez zen bolada oso gogorrik izan.

Haizeari loturiko muturreko egoerei dagokienez, hilaren 9an eta 12an izandako enbatak aipatu behar dira. Hilaren 9an izandako enbata txikia izan zen; egunaren Erdiko orduetan Bizkaiko kostaldean ipar-ekialdeko haizea ibili zen eta horregatik han tenperaturaren jaitsiera ez zen oso handia izan. Gipuzkoako kostaldean izan zen tenperaturaren jaitsiera nabarmenagoa, han hego-haizea ibili baitzen enbata izan baino lehen. Hilaren 12an izandako enbata ohikoa izan zen, 7-8 °C inguruko tenperaturaren jaitsierarekin eta 70 km/h-tik gorako haize-boladekin, haien artean aipagarrienak Matxitxakon (113.9 km/h), Santa Claran (109 km/h) eta Punta Galean (100.5 km/h) neurtutakoak, hilabete osoan neurtutako haize-boladarik gogorrenak.

Hilaren 31an, gauean, trumoi-ekaitza izan zen barnealdean, haize-bolada zakarrekin batera. Barnealdeko zenbait lekutan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (Gasteiz 94.9 km/h, Navarrete 85 km/h, Ordizia 83.3 km/h).

Analisia

Maiatzaren 1etik 4ra

Maiatzaren hasieran giroa freskoa eta egonkorra izan zen. Hori bai, goi-geruzan ezegonkortasuna izan zen nagusi, izan ere aska bat Britainiar uharteetatik Bizkaiko golkora zabaldua zegoen. Gainazalean, ordea, presio altuak gailendu ziren: hilaren 2an Kantauri itsasoaren erdialdean antizikloi txiki bat kokatu zen, 1024 hPa-ekoa. Antizikloia ekialdera mugitu zen gero eta hilaren 4an ongi definitu gabeko egoera batera pasatu ginen. Zeruan ostartean izan genituen, noizbehinka zabalak.

Maiatzaren 5etik 8ra

Hilaren 5ean 500 hPa-eko mailan zegoen zirkulazio zonalari loturiko fronte hotz ahul batek lurraldea zeharkatu zuen. Zirkulazio zonalak hilaren 9ra arte izan zen nagusi. Hilaren 5ean eguraldia euritsua izan zen, batez ere ipar partean, baina gainerako egunetan euria urria izan zen, hodeiak ugariak izan arren. Hilaren 8an hego-haizea ibili zen eta 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 16 °C ingurura



igo zen; horregatik ipar isurialdeko zenbait lekutan tenperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren.

Maiatzaren 9tik 10era

Hilaren 9an egoerak ezegonkortzera egin zuen. 500 hPa-eko mailan zirkulazioa izurtu egin zen eta aska sakon bat sortu zen, gainazalean Britainiar uharteetatik igaro zen lurrazaleko depresio bati loturikoa. Britainiar uharteetako depresio horri loturiko fronte hotz luzeak eguraldia goitik behera aldatu zuen egun hartan. Goizean hego-mendebaldeko haizea ibili zen eta giroa epela izan zen. Eguerditik aurrera, ordea, frontearen aurretik trumoi-ekaitzak garatu ziren eta han-hemenka zaparrada trumoitsuak bota zituen. Arratsaldean frontea pasa zen lurraldetik eta enbata izan zen. Euria denean egin zuen eta ekaitzak jo zuen zenbait lekutan. Hilaren 10ean ere zaparrada trumoitsuak bota zituen, txingorrarekin batera eta tenperatura asko jaitsi zen.

Maiatzaren 11tik 20ra

Hilaren 11an eguraldia egonkortu egin zen. Hurrengo egunean eguraldiak txarrera egin zuen berriro. Hilaren 9an gertatu zen bezala, goizean hego-mendebaldeko haizea ibili zen eta giroa atsegina izan zen. Egunaren erdiko orduetan mendebaldetik sartu zen fronte hotz batek eguraldia aldatu zuen. Bigarren enbata bat jazo zen, hilaren 9koa baino handiagoa, 114 km/h-ko haizebolada batekin Matxitxakon. Euri txikia egin zuen. Hilaren 13tik aurrera ipar-mendebaldeko haizea gailendu zen gurean eta goi-geruzan eta 850 hPa-eko mailan aire hotza agertu zen. Giroa ohikoa dena baino freskoagoa izan zen, hodei ugariarekin; euri txikia egin zuen, batez ere ipar-isurialdean. Hurrengo egunetan eguraldiak berdintsu jarraitu zuen, hilaren 20an izan ezik; egun horretan hego-haizeari eta intsolazio handiari esker tenperaturak gora egin zuen eta barnealdeko maximoak 27-28 °C ingurukoak izan ziren.

Maiatzaren 21etik 25era

Egun haietan tenperatura maximoak ohikoa dena baino baxuagoak izan ziren. Giro hezea eta mendebaldeko haizea, Britainiar uharteetatik igaro ziren bi depresioei esker; goi-geruzan pasa ziren askei loturikoak, lehenengoa bigarrena baino sakonagoa izanik. Depresio horiei loturiko fronteek euria ekarri zuten, batez ere Kantauri isurialdera. Hilaren 25etik aurrera Atlantikoan kokatutako presio altuak Europako hegoaldera zabalduz joan ziren.

Maiatzaren 26tik 31ra

Egun haietan presio altua izan zen nagusi Europan. Europa iparraldean antizikloia ezarri zen, eta horrek goi-latitudeetan zirkulazioaren blokeoa eragin zuen. Gauzak horrela, goi-geruzan aire-hotza isolatuta geratu zen eta Atlantikoan GIDE bat sortu zen, Iberiar Penintsularen mendebaldean, hain zuzen ere. Tenperatura maximoak igo egin ziren, ohiko balioetara, eta ezegonkortasuna ere areagotu egin zen, Iberiar penintsulan depresio erlatibo bat sortu zelako. Hilaren 31an Atlantikoan zegoen GIDEa Iberiar penintsulara hurbildu zen eta ezegonkortasun handia eragin zuen gurean: prezipitazio handia egin zuen, txingorrarekin, eta deskarga elektrikoak ere ugariak izan ziren.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko maiatzeko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	14.8	19.3	30.7	11.1	7.1	0	50.1	16.3	10
Lasarte	14.1	19.1	31.8	9.4	5.1	0	69.7	12.0	16
Arrasate	13.4	20.1	30.9	7.6	2.2	0	39.8	8.4	12
Abetxuko	12.3	19.4	28.6	5.8	1.5	0	39.5	8.9	11
Párganos	14.5	21.2	29.1	8.5	2.8	0	18.0	7.2	4



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko temperatura
 Temperatura maximoa




Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Maiatzean 10 minutuan pilatutako prezipitazio maximoa

Estazioa	Data	Aurtengo errekorra 2021eko maiatza (mm)	Aurreko errekorra XXI mendeko maiatza (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Zaldiaran	31/05/2021	14	8.2	30/05/2011	1994
Eskas	09/05/2021	7.3	3.3	10/05/2020	2017
Alegia	31/05/2021	12.2	8.3	24/05/2009	1996

Maiatzean ordubeteetan pilatutako prezipitazio maximoa

Estazioa	Data	Aurtengo errekorra 2021eko maiatza (mm)	Aurreko errekorra XXI mendeko maiatza (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Eskas	09/05/2021	18.3	15.8	10/05/2020	2017
Zaldiaran	31/05/2021	19.4	17.8	21/05/2004	1994
Derio	31/05/2021	16.6	16.1	11/05/2006	1996
Sangroniz	31/05/2021	14.8	14.3	08/05/2020	2012



Muturreko egoerak

Maiatzean 5 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 2 prezipitazio handiagatik, 1 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 2 enbatagatik.

- Hilaren 9an, egunaren erdiko orduetan, fronte hotz batek Kantauri isurialdea zeharkatu zuen, ezegonkortasun lerro batekin batera. Goizean goiz depresio bat Britainiar uharteen mendebaldean kokatu zen eta hego-haizea mugitu zuen gurean, bolada oso gogor batzuekin haizeguneetan. Mediterraneo itsasoaren mendebaldean aire-masa bero bat kokatu zen eta horregatik kostaldeko tenperatura maximoak 24 edo 25 °C ingurukoak izan ziren. Egunaren erdiko orduetan kostaldearen mendebaldean brisa ahula ibili zen eta tenperaturak behera egin zuen; horregatik tenperaturaren jaitsiera ez zen kostaldearen ekialdean bezain handia izan. 14:00 UTC aldera Punta Galean haizea ipar-mendebaldetik finkatu eta indartu egin zen. Haizea kostalde osoan ipar-mendebaldera aldatuz joan zen gero eta 15:30 UTC aldera Jaizkibelen aldatu zen. Enbata 16ak aldera bukatu zen, beraz. Kostaldearen mendebaldean tenperaturaren jaitsiera 5 °C ingurukoa izan zen, ekialdean 8-9 °C-koa (Zarautzen 14:40an UTC tenperatura 23.8 °C-koa zen, 15:30ean UTC 15.2 °C).

Estazioa	WNW haize-bolada (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	58.2	14:20
Deusto	43.4	14:20
Matxitxako	57.9	14:30
Zarautz	57.9	15:30
Santa Clara	69.5	15:30
Miramón	49.4	15:40
Jaizkibel	56.8	15:50
Higer	46.2	15:50

Igandea, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 14etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 9an, arratsaldean, fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen, ezegonkortasun-lerro bat bere aurretik zihoala. Zaparrada trumoiatsuak bota zituen, batez ere kantauri isurialdean. Zaparradak ertainak izan ziren orokorrean, Gipuzkoako ekialdeko zenbait lekutan handiak. Litekeena da txingorra ere botatzea zenbait lekutan, baina ez zen haize-bolada gogorrik neurtu.



Estazioa	Prezipitazioa ordubeteen (mm)	Ordua UTC
Eskas	18.3	19:30
Berastegi	15.2	18:50

Igandea, hilak 9: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 18etatik 21etara ordu lokala..

- Hilaren 12an depresio bat Bizkaiko golkoaren hegoaldetik igaro zen, Iberiar Penintsularen ipar-mendebaldetik Mantxako kanalera bidean. Egunaren lehenengo partean, depresioa Kantauri itsasoaren mendebaldean zegoela, hego-mendebaldeko haizea indartsu ibili zen gurean. Egunaren erdiko orduetan fronte okluditu bat pasa zen lurraldetik eta kostaldean haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen, bolada oso gogorrekin aldatzeko momentuan. Enbata 11:00 UTC aldera hasi zen eta 12:30 UTC aldera bukatu zen. Haizearen aldaketaren ondoren neurtutako tenperatura jaitziera 7 °C ingurukoa izan zen; maximoak 20-21 °C ingurukoak izan ziren, haize aldatu eta 13-14 °C inguruan geratu zen tenperatura. Depresioaren hurbiltasunagatik eta haizearen indarragatik, olatu handiak izan ziren Kantauri itsasoan. Egunaren bigarren partean Pasaiaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 2.5-3 m ingurukoa izan zen (2.95 m 21:30ean UTC), Donostiako buian 20:00etan UTC 4 m neurtu ziren. Hilaren 13an, goizean, depresioa Britainiar uharteetan kokatu zen eta olatuen altuera adierazgarria azkar jaitzi zen.

Estazioa	WNW haize- bolada (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	100.5	11:00
Deusto	63.1	11:10
Matxitxako	113.9	11:20
Zarautz	92.8	12:00
Santa Clara	109	12:10
Miramón	82.9	12:00
Jaizkibel	96.3	12:20
Higer	91.7	12:10

Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria (m)	Ordua UTC
Pasaiaiko Portua	2.95	21:30
Donostiako buia	4	20:00



Asteazkena, hilak 12: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 12etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 20an egonkortasuna izan zen nagusi Bizkaiko golkoan, goi-geruzan gailur bat zabaldua zegoen eta gainazalean presio altuak genituen. Hilaren 19an, arratsalde-gau partean, hodeiak gutxituz joan ziren eta hilaren 20an, goizaldean, zerua hodei gutxirekin egon zen. Ondorioz, temperatura minimoak barnealdean nahikoa jaitsi ziren eta Arabako zenbait lekutan izotz txikia egin zuen, batez ere ekialdeko mendi inguruetan. Hilaren 23an ere izotz txikia egin zuen Mediterraneo isurialdeko zenbait lekutan (Tobillas, -0.2 °C).

Estazioa	Temperatura minimoa, hilak 20 (°C)
Iturrieta	-1.4
Egino	-0.5
Roitegi	-0.4
Trebiño	-0.2

- Hilaren 24an depresio bat Britainiar uharteren hegoaldetik igaro zen eta Kantauri itsasoaren ekialdean olatuen altuera adierazgarriak gora egin zuen. Gauean Donostiako buian olatuen altuera 3.5 m-tik gorakoa izan zen (3.875 metro 23:00etan UTC). Hilaren 25ean, goizaldean, Pasaiako portuan olatuen altuera adierazgarria 3.92 m-koa izan zen eta gainezka egiteko indizea $I = 6$ m. Egunaren bigarren partean Pasaiako portuan eta Donostiako buian olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen eta gainezka egiteko indizea $I = 5.75$ m.
- Hilaren 31an tenperaturak gora egin zuen nabarmen eta maximoak Kantauri isurialdearen barnealdean 30 °C-tik gorakoak izan ziren (Saratxo, 33.2 °C). Arratsaldearen hasieran zerua hodei gutxirekin egon zen, baina amaieran mendebaldean bero-hodeiak ugarituz joan ziren eta Burgosen eta Kantabria barnealdean trumoi-ekaitzak garatu ziren. Gauean barnealdean trumoi-ekaitzak izan ziren, 1-2 cm-ko txingorra bota zuen eta haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (Gasteiz 94.9 km/h, Navarrete 85 km/h, Ordizia 83.3 km/h). Zaparrada ertainak bota zituen orokorrean, zenbait lekutan handiak izan ziren: Gasteizko mendietan, Bilbo Handian eta Tolosaldean. Ordubetean eta 10 minutuan pilatutako prezipitazio maximoen errekor batzuk hautsi ziren.

Estazioa	Prezipitazioa ordubeteen (mm)	Ordua UTC
Alegia	22.5	20:50
Zaldiaran	19.4	19:10
Derio	16.6	20:40



Deusto	15.9	20:30
Araxes	15.2	20:20

Astelehena, hilak 31: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 18etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://meteodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.